



ESPERIENTZIAREN IZENA: Andragunea Jabekuntza Eskola eta Emakumeen Etxea

OINARRIZKO DATUAK

- **Erakundearen izena:** Durangoko Udal Andragunea.
- **Erakunde mota:** Publikoa.
- **Sortze-urtea:** 2011.
- **Jarduera-sektoreak:**
Emakumeen eskubideen aldeko sentsibilizazioa eta eragina sustatzeko gunea, ahalduntze-eskola, informazio-puntua, Emakumeen Etxea.
- **Egitura:** Durangoko Udalaren mendeko baliabidea da. Soldatapeko langile bat du lanaldi osoan.
- **Kokapena:** Lariz Torre kalea, 2 - 48200 Durango
- **Webgunea:** <http://www.durango-udala.net/>
- **Jarduera eremua:** tokikoa eta eskualdekoa

HARREMANETARAKO DATUAK

- **Harremanetarako pertsona:** Nagore Uribe-Etxebarria
- **Telefonoa:** 944 657 092
- **Helbide elektronikoa:** andragunea@durango.eus

SINTESIA

ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA:

Andragunea emakumeen topagune eta prestakuntzarako lekua da. Gizon eta emakumeen berdintasun-harremanak errazteko espazioa.

ZER LORTU NAHI DU ANDRAGUNEAK?

- Emakumeentzako erreferentziatzeko espazio bat izatea Durangon eta ingurunean.
- Aukera Berdintasunerako lana sendotzea eta ingurunearekiko harremanak egonkortzea.
- Gizon eta emakumeen Aukera Berdintasuna sustatuko duten lan-ildo berriak bultzatzea.
- Berdintasun Kontseiluaren bidez parte hartzen duten udalerriko emakume- elkarteei laguntzea. Kontseilua osatzen duten elkarteak honako hauek dira: Batzorde Politiko bat, elkarte bakoitzeko (Bilgune Feminista eta Andereak, Durangoko Plataforma Feminista osatzen dutenak) ordezkari bat edo bi eta banaka parte hartzen duten emakumeak.

TESTUINGURUA

Durangoko Berdintasun Kontseiluak Udalarai egindako eskaeraren ondorioz sortu zen Andragunea. Zehazki, antolatutako emakumeek okupatzeko leku bat eskatu zion.

Gaur egun, 500 bat lagunek parte hartzen dute (gizon zein emakumeek) Andraguneak ikasturte bakoitzean antolatzen dituen jarduera guztietan.

Andragunea Durangoko Udalak finantzaturik dago eta bi etapa bereiz daitezke haren ibilbidean:

- 1) Udalaren Berdintasun Batzordeak espazio fisikoa sortu zuen 2011 eta 2016 bitartean, Durangoko Kultur Etxean.

2) 2016ko irailean, Andraguneak hiru solairuko espazio propioa lortu zuen bere jarduera garatzeko.

Zentro horretan ikastaroak ematen dira emakumeen ahalduntzea lantzeko. Urtean diruz lagundutako 20 edo 30 ikastaro eskaintzen dira.

Horrez gain, topagune bat da, solasaldiak, erakusketak, beste erakunde batzuekiko lankidetzak eta abar egiteko.

INFORMAZIO OROKORRA



Zer lortu nahi zen?

Herriko eta eskualdeko emakumeentzako erreferentziako leku bat izatea.

Zer lortu zen?

Andragunearen jarduerak garatzeko espazio fisiko bat eta lanaldi osoko langile bat.

Nola lortu zen?

Durangoko plataforma feministaren errebindikazioaren bidez.

Nork ahalbidetu zuten?

Plataforma feministak eta Durangoko Udalak.

Arrakasta faktoreak

Ahalduntze-ikastaroen eskaintza handia.

Etorkizunerako erronkak

Emakumerik gazteenak Andragunera erakartzea.

Inguruko emakumeentzako erreferentziako espazio izatea benetan.